

**GARAPEN BIDEAN DAUDEN ITSASOKO ENERGIA TEKNOLOGIA BERRIZTAGARRIAK ERAKUSTEKO ETA BALIOZTATZEKO INBERTSIOEN ALDEKO LAGUNTZEN PROGRAMA 2022**

**II. ERANSKINA. ESKATZAILEAK ARAUAK BETETZEAREN INGURUKO ARDURA-DEKLARAZIOA  
ESKAERAREN EGUNEAN**

Eskatutako datu guztiak LETRA LARRIZ IDATZI behar dira

A - MARE – 2022

jn./and., NAN zk.: .....

hau legez ordezkatzuz: .....

IFZ zk: .....

eta helbide soziala: .....

**HAUXE ADIERAZTEN DU**

1. Dirulaguntza eskaeran adierazitakoa eta aurkeztu duen dokumentazioa egia dela, eta horren faltsutasunetik edo zehaztasun ezatik erator daitekeen edozein erantzukizun bere gain hartzen duela, eta faltsutasun edo zehaztasun ezarik egongo balitz, ez legoke argudiatzerik egintza horien inguruko ezjakintasuna.
2. Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 31.3 artikuluan xedatutakoa betez, Kontratazio Publikoaz diharduen araudian ezarritako zenbatekoak gainditzen badituzte gastu lagungarriaren zenbatekoek, kontratu txikiari dagokionez, onuradunak gutxienez hiru eskaintza eskatu beharko zaizkie hornitzaile ezberdinei, obrarako konpromisoaren kontratazioa gauzatu, zerbitzua egin edo ondasuna eman aurretik, salbu eta, haren ezaugarri bereziengatik, merkatuan nahiko erakunderik ez baldin bada gauzatu, zerbitzu egin edo hornitzeko, edo salbu eta gastua egiten baldin bada dirulaguntza eman baino lehen (salbuespena, azken kasu honetan, 651/2014 Erregelamenduaren mende dauden enpresei begira).
3. 2. oinarrian azaltzen denarekin bat etorri - Laguntzen Programaren onuradunak:
  - a) Azaroaren 17ko dirulaguntzez diharduen 38/2003 Legearen 13. artikuluen 2. eta 3. ataletan xedatzen diren eskakizunak betetzen ditu onuraduna izateko, eta artikuluko horretan aipatzen diren ezein baldintza edo kasutan ez dago, dirulaguntzaren onuraduna ez izateari begira.
  - b) Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Orokorraren Antolamendu Printzipioen Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Dekretu Legegilearen 50. artikuluen 5. atalean xedatzen diren eskakizunak betetzen ditu onuraduna izateko, eta artikuluko horretan aipatzen diren ezein baldintza edo kasutan ez dago, dirulaguntzaren onuraduna ez izateari begira.
  - c) Ez du izaera bereko laguntzei edo dirulaguntzei dagozkien kantitateak itzultzeko betebeharririk.
  - d) Enpresa bat izanez gero, 651/2014 Erregelamenduaren arabera emandako dirulaguntzak, edo haren 1. artikuluen 4a) eta 4c) ataletan xedatzen denari jarraiki, ordezkatzun duen pertsona:
    - Ez dago berreskuratzeko agindu baten zain, aldez aurretik Batzordeak emandako erabakiaren arabera, dirulaguntza barne-merkatuarekin legez kanpokoa eta bateraezina dela adierazten duena.
    - Ez dago krisian, krisia jasaten duten enpresak bideratzeko eta birmoldatzeko Estatuko dirulaguntzei buruzko EBren jarraibideen arabera.
4. Enpresa bat izanez gero, Eusko Legebiltzarraren Herrialde Pobretuekiko Justizia eta Elkartasunerako Gutunaren abenduaren 28ko 14/2007 Legea betez, enpresak ez du helburu sozialik eta ez da aritzen armagintzaren ekoizpen, merkaturatze eta finantzaketan ere.
5. Enpresa bat izanez gero, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Orokorraren Antolamendu Printzipioen Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Dekretu Legegilearen 50.5 artikuluan xedatzen diren eskakizunak betetzea, sexua dela eta, diskriminazioaren eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren gaiari dagokionez.

**Datu pertsonalak babesteari buruzko informazioa:**

**Tratamenduaren arduraduna:** ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEA (EEE). **Helburua:** laguntza-/dirulaguntza-eskaera kudeatzea eta Eusko Jaurlaritzaren politiken monitorizazioa eta estatistika. **Eskubideak:** datuetan sartzea eta datuak zuzendu eta ezabatzea, **informazio gehigarrian** azaltzen denez, datuak babesteari buruzko informazio gehigarria eta zehatza kontsulta dezakezu Laguntza Programaren oinarrietan.

Lekua eta eguna: .....

Izena eta abizenak: .....

Sinadura *(Eskatzailearena, edo kide guztiena, modu indibidualean, proposamena lankidetzan baldin bada)*